



Antton Aranburu



Fetén Fetén

“Kontzertuan eta irekita”, udako musika-hitzordua izango da beste behin Santa Maria Katedraleko elizpean

“Kontzertua eta irekita” ekimena itzuliko da Santa Maria Katedraleko elizpera. Gure espazio abegikorrek eta akustikak, hirian espero den temperatura-igoerarekin batera, animatuko dute, ezbairik gabe, beste urte batez udako hitzordu artistiko baterano honek gerturatuko digun eskaintza musikal anitza.

Kontzertuak **uztailaren** azken **asteburuan** eta abuztuaren lehenengoan izango dira, **20:00etan**, gure elizpean, **ostiral eta larunbatetan**. Eguzkia desagertu nahian hasten denean, musika-kalitate onenarekin freskatzeari izango da aukerarik onena.

Publiko orokorrak sarrerak eskuratu ahal izango ditu 10 €-ren truke eta abonamenduak 30 €-ren truke www.abiertoporconcierto.eus web orrialdearen bitartez.



Fanny Desk

Uztailaren 26an, ostirala, izango den lehen kontzertua **Fanny Desk** bikoteak eskainiko du. Banda honen proposamen artistiko paregabeak musika klasiko eta modernoa batzen ditu. Erromantizismoko Lied alemanaren errepertorioa interpretatzen dute, melodia klasikoari eusten dioten moldaketekin baina beste estilo eta garai batzuetara ere eramaten dute. Emaldian, musika eta hitz mintzatua konbinatuko dituzte, publikoarekin elkarrizketa sortuz eta egungo gaiak umorez landuz.

Uztailaren 27rako, larunbata, programatutako hurrengo kontzertuak musika tradizionala eta herrikoia izango ditu protagonista, **Feten Fetén**-i esker. Bikote sortzaile honek instrumentu konbentzionalak eta ezohikoak erabiltzen ditu musika freskoa, dibertigarria eta dantzagarria eskaintzeko. Ibilaldi bat egingo da hainbat lurretan barrena, Balkanetako oihartzunak, manoucheen ezaugarriak, japoniar oroitzenak eta itsasoko soinuak gehituz.

Kontzertuan eta irekita ekimenak abuztuaren 2an, ostirala, jarraituko du, **Antton Aranburuk**, Busturian (Bizkaia) jaiotako eta Vitoria-Gasteizen bizi den musikari eta artista polifazetikoak, hurbilduko digun musika-paisaiaren bitartez. Gasteizen, MAILUK musika-eskola sortu du. Musikarekiko, antzerkiarekiko eta literaturarekiko duen pasioa aztertzen du “abestien artisaun” honek eta gitarra, ipuinen idazketa eta hau-

rrentzako antzezlan musikalak bezalako diziplinak jorratzen ditu.

Azkenik, **Rebeca Jimenez eta Benjamin Pradok** amaiera emango diote musika-ziklo honi abuztuaren 3ko (larunbata) arratsaldean, “Agitado y Mezclado” izeneko kontzertu intimoaren bidez. Hain zuzen ere, poesia eta musikaren arteko fusioa da, sorpresaz beteriko bidaia emozionala eta Espainiako, Estatu Batuetako eta Latinoamerikako musika estiloen fusioak. Hitzak berebiziko garrantzia izango du, poemak eta abestiak uztartuz istorio liluragarria sortzeko.



Rebeca Jiménez y Benjamín Prado

Fundatzaileen Zirkuluko bazkideentzako sarrerak: Kontzertuak 6 € / Abonua 20 €

Uztailaren 15era bitarte eskuragarri.

Telefono-zenbakia: 945 255 135

“Zinema elizpean” ekimenerako udako programazioa

Abuztuko lehen asteburuan hasiko da “Zinema elizpean” ekimenerako programazioa. Kultura Kalean eta Laboral Kutxaren eskutik, Santa Maria plaza berriro argiztatuko da udako gauetan. Errekonozimendu eta ospe handiko filmak izango ditugu familia osoak gozatzeko.

Zikloa honako film hauek osatuko dute:

Abuztuak 2 / 22:00: Barbie

Abuztuak 24 / 21:30: CampeoneX

Abuztuak 31 / 21:30: El Carné



Naiara de la Puente, Nazioarteko Musika Jaialdiko Kontzertuko protagonista

Abuztuaren 19an, astelehena, 20:00etan, Santa Maria Katedralean Naiara de la Puente akordeoi-jotzaile ezagunaren emanaldi berezia izango da. Musika-topaketa horretan, aukera paregabea izango dugu musika-tresna liluragarri horren soinuaz gozatzeko.

Haren akordeoiak transmititzen duen abangoardiak zuzenduko du entzumen-bidaia. Hain zuzen ere, barrokoko eta erromantizismoko organorako obratik abiatuko da, Johann Sebastian Bach



eta Leon Boëllmann-en mailako lanekin, eta, ondoren, kontzertu-akordeoirako idatzitako jatorrizko errepertorioan barneratuko da, abangoardia ezberdinetako konpositoreek idatziak, akordeoiaren soinu- eta adierazpen-aukerak aztertzen dituztenak, kontraste estetikoak kontuan hartuta.

Sarrerak eskuragarri izango dira abuztuaren 16tik aurrera (11:00etan), “Jesus Guridi” Musika Kontserbatorioko FCIMVren bulegoan (Konstituzio plaza, 9) edo hasi baino ordubete lehenago. Dohaintza: 5 €

¡ARRAI GAITZAKEZU!



AbiertoPorObras



@CatedralVitoria



CatedralVitoria



Katedraldea



@catedralvitoria